

## San Migel Plaza, oinezkoen gune



2025an hasi eta 2026ko hasieran amaituko dira plaza oinezkoen gune bihurtzeko lanak. Aurrerantzean, beraz, **ezingo da bertan aparkatu.**

Herriko plazan jende asko ibiltzen da egunero. Ikastolara edo lanera joateko, kirol-gunera gerturatzeke, aisialdirako, elkartzeko, jolaserako...

Plaza oinezkoentzako gune bihurtzearen helburua guztiok **segurtasunez** ibili ahal izatea da, eta neurria haurrengan dago bereziki pentsatuta.



Castellano




Aparkalekuen inguruko jokabide arduratsua izan dezagun

Hainbat herritarrek kezka azaldu du herrian aparkatzeko leku gutxi dagoela eta. Beste zenbait herritar haserre azaldu dira Irurako kaleetan autokarabanak eta antzekoak ugaritzen ari direlako eta beste ibilgailuei tokia kentzen dietelako.

Udalak **eskuorri** hau prestatu du, zenbait argibide eta gomendio zabaltzeko.


### Ibilgailu eta aparkaleku kopuruak



- Lur gaineko aparkalekuak: **672**
- Eraikin barruko aparkalekuak: **735**
- Udalerrian errolatutako ibilgailuak (turismoak): **1162**

## Gomendioak eta betebeharrak

- Ibilgailua **garaje**an sartu, horretarako eraikitako espazioak dira.
- **Debekatua** dago espaloi eta oinezkoen guneetan aparkatzea. Oinezkoen segurtasuna arriskuan jartzen du, kasu batzuetan errepidean sartzera behartuz eta gainera, zorua hondatu egiten da.
- Errespetatu **10 minutuko aparkalekuak**. Inguruko komertzioetan erosketa egin ahal izateko pentsatuta daude.
- Irura herri txikia da eta bertako ibilbideetan **oinez edo bizikletaz** mugitu. Osasuntsuagoa da eta ingurumenak ere eskertuko digu. Heldua bazara eta bizikleta edo patinete elektrikoaren erabiltzaile, errepidean barrena ibili, espaloiak oinezkoentzat dira eta.
- **Autokarabanak** edota **furgonetak** modu egokian aparkatu, beste erabiltzaileei oztoporik egin gabe. Beti leku berean aparkatzeko erabiltzen diren trikimailuak, plaza hori pribatu bezala erabiliz, legez kanpokoak ez badira ere, ez dira egokiak bizikidetzarako.



Udalak herriko ibilgailuen errolda eta aparkatzeko lekuak aztertu ditu eta argi dago **aparkatzeko nahikoa leku** badagoela.

Honenbestez, ondorioztatzen da herritar batzuk ez dituztela garajeak erabiltzen.

Gaur egun etxe bakoitzeko ibilgailu bat baino gehiago dago kasu askotan, eta garaje bakarra. Garajea duten herritarrek euren ibilgailua bertan gordetzen badute, kalean aparkatzeko aukera handiagoa izango da.

Egiaztatu dugu eguraldi txarrarekin eta larrialdi zerbitzuek abisuak ematen dituztenean (elurra, haizea, etab.) kalean auto gutxiago aparkatzen direla.

Autokarabana eta antzeko ibilgailuen gaiari lotuta, esan beharra dago 3.500 kilo edo gutxiagoko pisua dutenak turismoen sailkapen berdinean sartzen direla. Ondorioz, gaur egun indarrean dagoen Trafiko Araudiaren arabera, eskubide berdina dute herriko kaleetan aparkatzeko, betiere ez badute oztoporik sortzen.

Arduratsu jokatzeko deia egiten zaie gisa honetako ibilgailuen jabeei.



Udala autokarabanentzako aparkalekua eraikitzeko **gune baten bila** dabil. Udalaren jabetzako lursailek ez dute horretarako aukerarik ematen eta lursail pribatu bat behar da horretarako. Momentuz ez da lortu.

